BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3790

AGINDUA, 2015eko irailaren 2koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, 2015eko ekitaldiari dagokionez, Hirugune - Hiri Merkataritzaren Lankidetza, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko estrategia zonalak sustatzera bideratutako laguntza-programarako arauak ezarri eta deialdia egiten duena.

Eusko Jaurlaritzaren 2014-2015 Ekintza Planak, «Merkataritza Jarduera Bultzatu» izeneko bigarren ardatzaren barruan, honako hau jasotzen du: merkataritza dinamizatzeko ekintzen garapena laguntzea; betiere, auzuneetan eta udalerrietan, merkataritza-zonetara demanda erakartzeko eta horri eusteko helburuarekin. Halaber, lankidetza publiko-pribatua balorizatzea ere jasotzen da; hartarako, «Hirigune» hiri-inguruneak dinamizatzeko programak ezarriz udalen eta elkarteen artean.

Euskadiko Merkataritza Egokitzeko 2015 Planetik eratortzen diren jarduera-ildo nagusiak, merkataritza garatzeko agertoki lehiakorrago eta profesionalago bat sustatzera bideratuta daude. Merkatua aurrera doa globalizaziora bidean eta tokiko merkataritzak gero eta argiago definituta eduki behar ditu, bai bere lehiakortasun-tresnak, eta bai bezeroen leialtasuna lortzera orientatu eta finkatu beharreko estrategiak ere. Horregatik, Lurraldea ardatz estrategikoan kokatuta, ondorengo lan-programa garatu da: Hiri Merkataritzaren Lankidetza, Dinamizazioa eta Lehiakortasuna.

Horren ondorio gisa, kontsumitzaileen gustuak eta lehentasunak asetzea eta, hortaz, berorien leialtasuna hobetzea.

Helburu horrek hirugarren sektorerako estrategiak ekarri behar ditu; zonako lankidetza-ekintzak izango dira horiek, inguruneak eskaintzen dituen eremuko edo sektoreko aukerei balioa emateko; horren ondorioz, inguruneak marka-kokapen hobea izango du, eta haren kudeaketa profesionalizatua bermatuko da.

Ekimen publiko eta pribatuaren arteko lankidetzari beharrezkoa eta giltzarria dela irizten zaio programa honen helburuak lortzeko, bai eta dauden baliabideen aprobetxamendu onena erdiesteko ere.

Aurkeztutako jarduera-proiektuak globalak eta bakarrak izango dira, udalerrikoak, eta aldeen artean ezarritako helburu guztiak hartuko dituzte barnean, ekimen publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetza-hitzarmena behin sinaturik dela, zeina diru-laguntzaren xede den proiektuaren plangintzarako, jarraipenerako eta ebaluaziorako bitarteko eta tresna izango baita.

Horren guztiaren kariaz,

HONAKO HAU EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Eranskinean jasotzen den legez, 2015eko ekitaldiari dagokionez, honako deialdiaren oinarri arautzaileak onartzea: Hirugune - Hiri Merkataritzaren Lankidetza, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko estrategia zonalak sustatzera bideratutako laguntza-programarena.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Oinarriek prozedurari dagokionez aurreikusten ez dituzten kasuetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legea –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa– ezarriko da.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, edo, zuzenean, administraziorekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, betiere agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 2a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

OINARRI ARAUTZAILEAK

I. KAPITULUA.– XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

1.– Lege honen xedea da:

a) Beren jarduera gauzatzen duten hiri-inguruneetako marka-kokapena eta merkataritza arloko lehiakortasuna hobetzera zuzendutako hiri-merkataritzako lankidetza eta dinamizazio estrategien garapena sustatzea.

b) Merkataritza-dentsitate txikiko gunetan, lankidetza zonalerako proiektuen ezarpena eta garapena bultzatzea; betiere, suspertu behar diren zonetan merkataritza-hornikuntza hobetzeko proposamen estrategikoak integratzen badituzte proiektuok.

2.– Aipatu programarekin bat etorriz, jarraian zehaztu jarduera-proiektuak ezarri eta garatzeko laguntza ekonomikoak emango dira: udalerri mailakoak izanik, euren izaera estrategikoa dela-eta bereizi eta globalak izateaz gain, parteek adostutako ekintza guztiak integratuko dituztenak. Adostasun hori lankidetza-hitzarmen publiko-pribatu baten sinadurarekin gauzatuko da, bakarra udalerri bakoitzeko, beharrezkoa laguntza lortu nahi bada, proiektuarekin batera, eta urtero berretsi beharko da. Esandako adostasunak berariaz jasoko du zer-nolako modua ezarri den diru-laguntzaren xede den proiektuaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

2. artikulua. – Baliabide ekonomikoak.

1.– Goragoko artikuluan zehaztu helbururako diren baliabide ekonomikoek 1.571.428,57 euro egingo dituzte, udalei dagokienez (2015erako 1.100.000 euro, eta 2016rako 471.428,57 euro); eta merkatarien elkarteen jarduerei dagokienez, 1.645.000 euro; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan hartarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik hartuko dira.

Agindu honetan araututako laguntzen osoko kopurua aldatu ahal izango da, eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren beste laguntza-programa batzuk bete ondoren agortu gabe geratu diren aurrekontu-baliabideen arabera, betiere azken horien gaineko erabakiak hartu aurretik. Hala gertatuz gero, argitara emango da Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen ebazpen bidez.

2.– Aipatu laguntzei aurre egin behar dien aurrekontuak ez badu kreditu egoki eta nahikorik lortu nahi den helbururako, laguntzak ukatu egingo dira administrazio-ebazpenaren bitartez. Era berean, diru-laguntzak emateko ezarritako kreditua agortuz gero, gertaera horren berri emateko, arlo honetan eskumena duen sailburuordetzak administrazio-ebazpen bat emango du eta bertan adieraziko du zer egunetan agortu den aipatu kreditua. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta ez da onartuko une horretatik aurrera aurkezten den beste laguntza-eskaerarik.

3.– Diru-laguntzen eskaera-espedienteak era ordenatuan ebatziko dira, agindu honetan galdatutako dokumentazio guztia esandako espedienteetan osatuta geratzen den momentuaren arabera.

3. artikulua.– Laguntzen modalitatea.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen bidez gauzatuko dira.

4. artikulua.– Bestelako laguntzekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan ezarritako laguntzak bateragarriak izango dira administrazio publikoek edo erakunde pribatuek emandako beste zeinahi laguntzarekin, betiere helburua berbera baldin bada.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoak ezingo du, beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek emandako diru-laguntzak batuta, aurkeztutako aurrekontuaren % 100 gainditu.

Gehiegizko finantzaketa gertatuko balitz, eman beharreko diru-laguntza murriztu egingo da diruz lagundutako proiektua egikaritzeko aurreko lerrokadan ezarritako osoko kostuaren mugaraino.

5. artikulua. – Erakunde onuradunak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoak eskatu ahal izango dituzte EAEko udalek eta udalerriko merkatarien elkarteek; baina lankidetza publiko-pribatuko «esparru-akordio» bat sinatu beharko dute biek, eta honako hauek xeheki adierazi beharko dira bertan:

– Udalerriko merkatarien elkarteen izena eta kopurua, eta, egoki bada, haien ordezkariaren izendapena.

– Helburuak.

– Ekintzak.

– Aurreikusitako egutegia.

– Proiektua gauzatzeko baliabide ekonomikoak eta berorien jatorria.

– Ekintza bakoitzaren estaldura eta arrakasta-maila neurtzeko erabiliko diren adierazleak.

– Existituko ez balitz, proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egingo duen organo baten eraketa.

a) Udalak:

1) 15.000 biztanletik gora dituzten udalerriak. Zerrenda agindu honetako II. eranskinean dago jasota.

2) 15.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak, hirigune historikoa baldin badute eta udalerriko merkataritza-establezimenduen kopurua dela eta, biziberritze komertzial baterako potentzialtasuna duten kasuan. Esandako udalak agindu honetako III. eranskinean daude zerrendatuta.

3) Beren eskualde-ingurunean ekonomia eta merkataritza arloko erreferentziazko gunetzat jotzen diren udalerriak. Aipatu udalak agindu honetako IV. eranskinean daude zerrendatuta.

4) Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeetako udalerri nagusiak, 100 merkataritza-establezimendutik gora dituztenak, agindu honetako 6. artikuluko 1.e idatzi-zatian jasotako jardueretarako soilik. Halako udalak agindu honetako III. eranskinean zerrendatzen dira.

b) Eremu zonaleko merkatarien elkartek eta elkarte mistoak, baldin eta, 2015eko urtarrilaren 1ean, inskribaturik badaude Euskal Autonomia Erkidegoko Merkatarien Elkarteen Erroldan, zeina ekainaren 17ko 148/1997 Dekretuaz arautu baitzen.

2.– Merkatarien elkarte bat baino gehiago dagoen udalerrien kasuan, udalerriko hiri-merkataritzaren plataformarik badago, horixe izango da ordezkaritza izango duena. Honako hau jotzen da halako plataformatzat: udalerriko merkatari elkarteen ordezkaritzaren gehiengoa duen merkataritza-elkarte zonala.

Hiri-merkataritzako plataformarik ez bada, udalerriko merkatarien elkarteen multzoak erabakiko du, era adostuan, erantsitako agiri batean, zeinek izango duen haien ordezkaritza, bakarra izango baita udalerriko, eta elkartea ordezkatuko duen pertsona izendatuko da eta behar bezainbat ahalmen emango zaio, laguntzaren onuradun gisa dagozkion obligazioak bete ditzan; esandako dokumentuan jasoko dira, orobat, elkarte bakoitzak nolako parte-hartze maila izango duen proiektua gauzatzean, eta elkarte bakoitzari esleituko zaion diru-laguntza zehazteari dagokionez izango den zenbatekoa.

Udalerriko merkatarien elkarte guztien adostasuna lortuko ez balitz; elkartekide kopuruari dagokionez enpresa-ordezkaritza maila handiena duen edo duten erakundearen/en eta udalaren artean iritsitako akordioak balioko du.

Horretarako, elkarrekin adostutako dokumentu bat aurkeztu beharko dute, aldeek sinatuko dutena eta bertan islatuko dira esandako akordioa lortzeko egin diren izapideak, akordiotik kanpo geratu diren erakundeak, zer arrazoigatik geratu diren kanpoan eta erakunde sinatzaileen ordezkaritza maila.

Era berean, urteko jardueren eragiketa-plana eta aurreikusitako finantzazio-sistema aurkeztu beharko dituzte.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren mendeko erakunde autonomoek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da erakunde onuradunei diru-laguntzak edo laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

4.– Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituzten enpresen proiektuak ez dira diruz lagunduko. Horri dagokionez, esandako betebeharrak beteak direla behar bezain maiz egiaztatuko du, automatikoki, merkataritzaren eskumena duen EAEko administrazioko sailak, erakunde interesdunek berariazko baimenik eman beharrik gabe, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.3 artikuluaren bigarren paragrafoan xedatutakoari jarraikiz, zeina Euskal Autonomia Erkidegoaren 2011ko Aurrekontu Orokorrak onetsi zituen abenduaren 23ko 5/2010 Legearen azken xedapenetako hirugarrenak gehitu baitzion legezko testu hari.

II. KAPITULUA.– UDALEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK

6. artikulua. – Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

Diruz lagun daitezkeen inbertsio-proiektutzat jotzen dira ondorengo hauek:

1.– Ikerlanak.

a) Agindu honetan aurreikusitako udalerrietan Merkataritza Suspertzeko Planak –halakorik ez badute– prestatzeko eta lantzeko ikerlanak, edo, egin zirenetik, 5 urtetik gorako antzinatasuna duten planak eguneratzeko egin beharrekoak.

Diruz lagundu ahal izateko, gutxienez, ondorengo eduki hauek jaso beharko dituzte:

1.) Udalerriaren identifikazio-parametroen azterketa.

2.) Zonako merkataritza azterketa.

3) Zonako espazio azterketa.

4) Udalerriko hornidura-sistemen azterketa, salerosgaien karga- eta deskarga-ordenantzei buruzko alderdiak barne direla.

5) Eskaeraren azterketa.

6) Diagnostikoa.

7) Helburuak eta ekintzak zehazten dituzten jarduera-proposamenak eta haiek gauzatzea ahalbidetuko duten adierazleak.

b) Txikizkako udal azokak eraldatzea, berregituratzea eta modernizatzea xede duten ikerlanak.

Ikerlan horiek, diru-laguntzarik jaso ahal izateko, gutxienez, ondorengo eduki hauek jaso beharko dituzte:

1.) kerketaren helburuak.

2) Udalerriaren deskribapen-azterketa.

3) Zonako merkataritza azterketa.

4) Xede-merkatuaren oraingo egoeraren azterketa, espazio, arkitektura eta merkataritza alderdiei dagokienez; irisgarritasuna, dekorazioa eta postuen kokapena ere aztertuko dira.

5) Oraingo kudeaketa-eredua eta baliabideak.

6) Eskaeraren azterketa.

7) Diagnostikoa.

8) Jarduera proposamenak:

– Globalak, azoka osorako, oro har.

– Azokako eskaintza komertzial globala (establezimendu aukera eta tipologia).

– Espezifikoak, salmenta-postu bakoitzarentzat.

– Erabiltzaileei zerbitzuak eskaintzea (etxera banatzea, ordutegiak, txartelak, aparkalekuak, informazio-puntuak,...).

– Produktu-gama berriak sartzea (bidezko merkataritza, produktu ekologikoak, tokikoak, eskuz landuak, jatorri-izendapen babestukoak, geografia-adierazpen babestukoak,...).

– Hondakinak gaika bildu eta tratatzeko sistemak.

– Barne araudia.

9) Proiektuaren bideragarritasuna epe labur, ertain eta luzera.

10) Gauzatzeko egutegi optimoa.

11) Kostuak kalkulatzea.

12) Ondorioak.

c) Hiri-markari buruzko ikerketak.

Halako azterlanek, gutxienez, honako informazio hau izan beharko dute:

1) Zioen adierazpena eta helburuak.

2) Udalerriaren ezaugarri espezifikoen gaineko azterketa.

3) Merkataritza-sektorearen ezaugarri espezifikoen gaineko azterketa.

4) Gainontzeko sektoreen ezaugarri espezifikoen gaineko azterketa.

5) Udalerriaren eta merkataritza-sektorearen ezaugarri bereizgarriak.

6) Hiri-marka zehaztea eta ezaugarriak.

7) Markaren euskarriak eta ezaugarriak.

8) Aplikazio-proposamenak.

d) Udalerriko plan estrategikoak prestatzeko azterlanak, honako hauentzako direnak: probintzietako hiru hiriburuak; eskualdeetako hiri-nagusiak, V. eranskinean jasotakoak, eta, merkataritzaren aldetik duten munta dela-eta, Barakaldo, Gernika-Lumo, Getxo eta Errenteria. Eta, gutxienez, honako hauek jaso beharko dituzte:

1) Hiriko Merkataritzaguneak (BID).

2) Merkataritzako Lokalak – Hiriko Merkataritza Sarea Leheneratzea.

3) Merkataritza – Turismoa Koordinazioa.

Hiriko Merkataritzaguneak (BID).

Diru-laguntzak lortu ahal izateko, inplikatutako udalerrien aldez aurreko berariazko adostasuna izan beharko dute azterlanek, eta, gutxienez, ondorengo eduki hauek jaso beharko dituzte:

• Jarduera-eremu geografiko mugatua.

• Ekimen pribatuak babes publikoarekin sortutako irabazte-asmorik gabeko erakundea.

• Demokratikoki sortuta, oro har atxikipen bidez.

• Udal araudiak aldez aurretik onetsita: finantzaketa, jarduera-plana.

• Eremuko negozioen jabe edo okupatzaile guztien nahitaezko ekarpenaren bidezko finantzaketa (tasa, errekargu, kontribuzio edo zerga berezien bitartez). Bestelako finantzabideak: laguntza publikoak, dohaintzak, zerbitzu-prestazioa, babesak, ekitaldiak antolatzea, etab.

• Jarduera ekonomikoa garatzen deneko higiezinen jabetzaren katastro-balioari lotutako kontribuzio-tasaren kalkulua, oro har.

• Administrazio eta zuzendaritzako organoak: Biltzar nagusia, zuzendaritza-batzordea, lan-batzordeak, zuzendari-gerentea.

• Kontribuzioa biltzen du udalak tokiko zergen bidez, eta ondoren BIDeko erakundeari transferitzen dio (Hiri Merkataritzako Plataformak).

• Negozio Planaren garrantzia; jardun-estrategia eta finantzaketa zehazten ditu, eta urteko jardun-planetan gauzatuta dago.

• Kudeaketa profesionala.

• Hiriko ekonomia suspertzera bideratutako ekintzak: sustapena, komunikazioa, marketina, zerbitzuak, etab.

Merkataritza Lokalak Leheneratzea.

Diruz lagundu jaso ahal izateko, itxita dauden merkataritza-lokalak leheneratzeko plan bat diseinatu beharra dago, honako hauek jasotzen dituena:

• Helburuak.

• Merkataritza, enpresa, turismo eta kulturako eskaintzaren analisia.

• Bizitoki-eskariaren analisia (zenbait kasutan turistikoa ahaztu gabe).

• Jardun-estrategia.

.– Hutsik dauden lokalen errolda.

.– Jabeak nor diren zehaztea.

.– Beharren azterlana (bizilagunak eta bisitariak).

.– Operadore berriak zehaztea.

.– Bitartekotza alderdien artean (jabeak - operadoreak).

.– Lege-aholkularitza.

Hiriko Merkataritza Sarea.

Diruz lagundu ahal izateko, hiriko merkataritza-sareari buruzko azterlanak, honako eduki hauek jaso beharko ditu:

• Eremuan edo inguruan dagoen merkataritza-eskaintza.

• Eremu horietan bizi direnen profila.

• Bizitegi-eremu berrietan bizi direnen profila.

• Eremuetako biztanleria mugikorraren profila.

• Bisitarien profila.

• Dauden ekipamenduak (kulturguneak, kirol-ekipamenduak, ikastetxeak, etab.).

Merkataritza – Turismoa Koordinazioa.

Diruz lagundu ahal izateko, merkataritza eta turismoa koordinatzeari buruzko azterlanak, honako eduki hauek jaso beharko ditu:

1) Merkataritzaren eta Turismoaren arteko lankidetza-kultura sustatzea, kooperaziorako formulak sortuz (adibidez, baterako komertzializazioa, aliantzak).

2) Kluster elkarte bat sor dadin laguntzea, hainbat organismok, erakundek. Networking jardunaldiak aldian-aldian antolatu ahal izan ditzaten, proposamenak, ideiak, etab. trukatzearren.

3) Lankidetzak lehiakortasuna hobetzeko eskaintzen dituen abantailen eta aukeren gainean saltokiak sentsibilizatzera bideratutako jarduerak diseinatzea eta burutzea.

4) Saltokien eta ostalaritzako enpresen arteko lankidetza saritzea.

5) Merkataritza-Turismo arloko baterako gida bat argitaratzea.

2.– Hirigintza-jarduerak merkataritza eremuetan.

Halako jarduerak dira: 5. artikuluan aipatu esparru-akordioan eta Merkataritza Suspertzeko Plan Berezian jasotako hiri-azpiegiturak egokitzeko proiektuetan egindako inbertsioak, baldin eta agindu honetako 5. artikuluko 1.a) 1), 2) eta 3) paragrafoetan aipatu udalek egiten badituzte, eta udalerriko merkataritza-jarduera aurrerabidean jartzeko helburua badute; esate baterako, merkataritza burutzen den ingurunea hobetzea.

Aurreko paragrafoan esandakoaren ildotik, uste da beharrezkoa dela MBP azterlan bat edukitzea; hala, puntu honetan zehaztu jardueretarako laguntzak eskatu ahal izateko.

Agindu honen ondorioei dagokienez, udalerriko hiri-azpiegituretan –barne dela hiri-ekipamendua– egokitzapen komertziala egiteko beharrezkotzat jotzen dira beherago zehaztu jarduerak; betiere, merkataritza aldeetan burutzen badira eta honako hauentzako badira:

a) Hiri-ingurunean kokatutako kale-merkataritza eta noizbehinkakoa garatzeko eremu espezifikoak egokitzea.

Agindu honen eraginetarako, kale-merkataritza eta noizbehinkakoaren garapen eta hobekuntza gisa hartuko dira esandako merkataritza-aktibitatea eguneratzen eta duintzen duten jarduera haiek, bai eta hiri-ekonomiak animatzeko duten balioa aitortzen dietenak ere, esate baterako:

1) Salmenta tipologia honetako jarduerak garatzeko erabiltzen diren eremuak edo azalerak egokitzea.

2) Merkataritza-aktibitate horri zerbitzua emateko ekipamendu eta azpiegitura ez-iraunkorrak: karpak, desarma daitezkeen egiturak edo antzekoak. Kasu horretan, merkataritza-jarduerari erreferentzia egiten dioten mezuak eta esloganak agerian eta ikusteko moduan paratu beharko dira.

3) Sostengu-zerbitzuen zuzkidura, hala nola argindarra, ura, ekipamendu elektronikoa, eta abar.

b) Udalerriko txikizkako merkatuetako postuak modernizatu eta berregokitzeko inbertsioak.

c) Seinaleztapen komertziala.

Halakotzat jotzen da: merkataritza-zonetako seinaleztapena ipintzea, eta bai merkataritza-zonetarako sarbideen seinaleak paratzea ere, trafikoaren arlokoak izan ezik.

d) Paramentu bertikalak edo antzekoak, iraunkorrak ez direnak, zeintzuen helburua baita: merkataritza-ardatzetako pasaia urbanoa eta estetikoa hobetzea; eta, betiere, jarduera bako lokalekiko loturarik badute.

e) Ardatzak eta kaleak oinezkoentzako prestatzea, eta bai haiek garatu eta birmoldatzea ere, baldin eta, azken zazpi urteetan, laguntzarik jaso ez badute sail honek eratu Merkataritza Suspertzeko Planen bidez.

f) Espaloien zabalera handitzea, 3 metroraino, kale batzuetan, hain justu ere dituzten lonjetan % 70 gutxienez merkataritzarako badira eta horietarik % 70 aktiboan badira Baldintza hori, udalaren ziurtagiriaren bidez kreditatu beharko da.

g) Bideak bitarteko kale bihurtzea.

Agindu honen ondorioetarako, honako espazio hauek jotzen dira bitarteko kaletzat: merkataritza-jarduera izanik, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa dutenak, zeintzuetan oinezkoek lehentasuna duten lehentasunik ibilgailuen zirkulazioarekiko; eta, besteak beste, honako hauek izan daitezke euren ezaugarriak: zoladura plano bakarra, paseorako zonetako eta ibilgailuentzako zonetako zoruak bereiztu egiten direlarik; trafikoa antolatua da eta abiadura mugatua du, gutxi-gorabehera 20 Km/h; kaleak ornamentuzko elementuak ditu, zeintzuek trafikoari atzera eragiten dioten eta oinezkoen aldeko lehentasuna indartzen, eta halakoak dira, bestek beste: arbolak, jardinerak, oztopo-zutoinak, bolardoak, etab.

h) Zamalanetarako eta/edo banaketa logistikorako zonak ezartzea; halakotzat jotzen dira: merkataritzako horniketa-lanak batu, zentralizatu eta minimizatzeko diren espazioak.

3.– Diru-laguntzaren helburu diren inbertsioak ekitaldia hasten denetik 2016ko abenduaren 31ra bitartean egin daitezke.

4.– Ez dira diruz laguntzeko modukotzat jotzen BEZa, tasak, profesionalen ordainsariak, etekin industriala, gastu orokorrak, ezta esandako kostuan zorrotz sartzen ez den beste ezein kontzeptu ere. Izaera orokorrez, ez dira diruz laguntzeko modukoak izango gero udalerrira itzultzea eskatuko duten jarduera eta/edo inbertsio haiek.

7. artikulua. – Laguntzen zenbatekoa.

1.– Laguntzen zenbatekoa: inbertsioen egikaritze materialaren kostuaren % 80koa izango da.

6.1 Ikerlanak artikuluan jasotako jardueren kasuan, ondorengo gehieneko zenbatekoak ezartzen dira diru-laguntzentzat, ikerlan motaren arabera:

– 6.1.a) artikuluko ikerlanak (MSPB eta eguneratzeak): 25.000 euro.

– 6.1.b) artikuluko ikerlanak (Udal azokak): 12.000 euro.

– 6.1.c) artikuluko ikerlanak (Hiri-marka): 6.000 euro.

– 6.1.d) artikuluko ikerlanak (Udalerriko plan estrategikoak prestatzea): prestatzearen kostuaren % 70, 25.000 euroko maximoarekin.

2.– Nolanahi ere, deialdi eta udalerri bakoitzeko gehieneko diru-laguntzaren muga hauxe izango da: herri-tramuaren arabera dagokion diru-laguntza udalerriko merkataritza-dentsitatearen koefizienteaz biderkatuta lortzen den emaitza:

Biztanleen araberako herri-tartea	Diru-laguntza-tramua
0 – 499	1.000 €
500 – 999	3.000 €
1.000 – 1.999	7.000 €
2.000 – 4.999	11.000 €
5.000 – 9.999	16.000 €
10.000 – 14.999	20.000 €
15.000 – 29.999	25.000 €
30.000 – 59.999	30.000 €
60.000 – 99.999	45.000 €
100.000 – 249.999	60.000 €
249.999tik gora	75.000 €

Agindu honen ondorioetarako, honako alderdi hauek izango dira kontuan:

a) Erreferentziatzat biztanleriaren eta merkataritzaren azken zentsua hartuko da, zeina EUSTATek eman zuen argitara, 2015eko urtarrilaren 1ean.

b) Udalerriko merkataritza-dentsitatea: txikizkako establezimendu kopurua x 1.000/biztanle kopurua.

c) Merkataritza-dentsitatearen koefizientea: udalerriaren merkataritza-dentsitatea/EAEko merkataritza-dentsitatea.

3.– VI. eranskinean aditzera ematen dira honako hauei buruzko datuak: biztanleria, merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-dentsitatea, udalerri bakoitzekoak; eta, orobat, EAEko merkataritza-dentsitatea.

4.– Diruz lagundu beharreko eskabideen zenbateko maximoa ez balitz iritsiko agindu honetan aurreikusitako baliabide ekonomikoen osoko zenbatekora, 6. artikuluaren 2. paragrafoan jasotako jardueretarako, soberakinak hainbanatuko dira hasieran emandako diru-laguntzaren % 20ko hazkunde maximora iritsi arte. Kasu horretan, ebazpen gehigarri indibidual bat jaulkiko da eta bertan jaso beharko da esandako inguruabar hori eta diru-laguntzaren osoko zenbatekoa. Halaber, emandako zenbatekoaren % 70 ordainduko da, 15. artikuluan aurreikusiarekin bat etorriz.

III. KAPITULUA.– MERKATARIEN ELKARTE ETA ELKARTE MISTOENTZAKO LAGUNTZAK

8. artikulua. – Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Diruz laguntzeko modukotzat jotzen dira udalerriko merkataritza garatzeko planteamenduekin bat datozen proiektuak, esparru-akordioan markatutako helburuak lortzera bideratuta daudenak, MSPB ikerlanean edo hura ordezten edo osatzen duen planean jasota daudenak, eta ondorengo eginbide hauek gauzatzen dituztenak:

a) Udalerriko merkataritza dinamizatzera eta sustatzera zuzendutako ekintzak antolatzea eta gauzatzea, berorien helburua merkataritza-fluxuak erakartzea xede duten zonako estrategiak bultzatzea baldin bada.

b) Ingurura merkataritza-fluxuak erakartzea erraztuko duten merkataritzaren zerbitzu osagarriak antolatzea eta sustatzea.

c) Sektorearentzat interes erkidea duten lankidetza-zerbitzuak garatzea eta kontratatzea (eskalako ekonomiak sortzen dituzten proiektuak, negoziazio onuragarriak, etab.)

2.– Ekitaldia hasten denetik 2015eko abenduaren 31ra bitartean gauzatu ahal izango dira diruz lagun daitezkeen jarduerak.

3.– Estatutuetako helburua banaketaren aktibitateari lotuta duten Merkatarien Elkarteek eta Elkarte Mistoek, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badute eta agindu honetako II, III eta IV. eranskinetan jaso gabeko udalerrietan kokatuak baldin badaude, gutxienez 10 merkataritza-establezimendu badituzte, laguntza eskabidea aurkeztu ahal izango dute, bakarra udalerriko, artikulu honetan jasotako aktibitateak garatzeko, eta aurreikusitako gainerako baldintza guztiak ere bete beharko dituzte, agindu honetako 5. artikuluan eta MSPB ikerlanean jasotako udalaren eta elkarteen arteko esparru-akordioa izan ezik.

BEZa eta gainerako tasak eta zergak ez dira lagunduko diruz.

9. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– Emandako laguntzen zenbatekoa proiektuaren egiazko kostuaren % 80ra irits daiteke.

2.– Nolanahi ere, deialdi bakoitzeko eta udalerriko elkarteen multzorako gehieneko diru-laguntzaren muga hauxe izango da: merkataritza-tramuaren arabera dagokion diru-laguntza udalerriko merkataritza-dentsitatearen koefizienteaz biderkatuta lortzen den emaitza:

Saltokien araberako tartea	Diru-laguntza-tramua
50tik behera	6.000 €
50 – 90	12.000 €
91 – 190	15.000 €
191 – 390	21.000 €
391 – 990	30.000 €
991 – 1.990	50.000 €
1.991 – 3.490	75.000 €
3.490tik gora	100.000 €

Diruz lagundu beharreko eskabideen zenbateko maximoa ez balitz iritsiko agindu honetan aurreikusitako baliabide ekonomikoen osoko zenbatekora, soberakinak hainbanatuko dira, hasieran emandako diru-laguntzaren % 20ko hazkunde maximora iritsi arte. Kasu horretan, ebazpen gehigarri indibidual bat jaulkiko da eta bertan jaso beharko da esandako inguruabar hori eta diru-laguntzaren osoko zenbatekoa. Halaber, emandako zenbatekoaren % 70 ordainduko da, 15. artikuluan aurreikusiarekin bat etorriz.

Agindu honen ondorioetarako, honako alderdi hauek izango dira kontuan:

a) Erreferentziatzat biztanleriaren eta merkataritzaren azken zentsua hartuko da, zeina EUSTATek eman zuen argitara, 2015eko urtarrilaren 1ean.

b) Udalerriko merkataritza-dentsitatea: txikizkako establezimendu kopurua x 1.000/biztanle kopurua.

c) Merkataritza-dentsitatearen koefizientea: udalerriaren merkataritza-dentsitatea/EAEko merkataritza-dentsitatea.

3.– VI. eranskinean aditzera ematen dira honako hauei buruzko datuak: biztanleria, merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-dentsitatea, udalerri bakoitzekoak; eta, orobat, EAEko merkataritza-dentsitatea.

IV. KAPITULUA.– PROZEDURA

10. artikulua. – Eskabideak eta dokumentazioa.

1.– Agindu honetatik eratorritako eskabide, eskaera, jakinarazpen eta gainerako kudeaketa guztiak elektronikoki gauzatuko dira, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuarekin (2012ko martxoaren 9ko EHAA, 50. zk.) eta E-Administraziorako Plataforma Teknologikoa –Platea– onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako Zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenarekin bat etorriz.

Eskabidera sartzea eta berori betetzea Internet bidez soilik egin ahalko da, honako helbide honetan: //www.industria.ejgv.euskadi.net/appcont/osaga-emp/dec.html, esandako webguneko funtzionalitateen bitartez, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Eskabide-eredua esandako egoitza elektroniko horretan egongo da eskura.

Espedientera sartzea eta gainerako izapideak beste helbide honetan ere egin ahal izango dira: http://www.euskadi.net/misgestiones

Eskabidearekin batera, erakunde eskatzailea ordezkatzeko jarduteko gaitasun legala duen pertsona edo erakundearen sinadura elektronikoa ez ezik, harekin batera aurkeztu beharreko agiri guztiak eta Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak xedatu bezala Administrazioak eska litzakeen guztiak ere aurkeztu beharko dira.

Goikoaukerahorrenalternatibagisa,baldinetasinaduradigitalaerabilinahiezbada,eskabideakhelbide honetan bete eta grabatu ostean: http://www.industria.ejgv.euskadi.net/appcont/osaga-emp/dec.html, inprimatu egin beharko dira, eta erakunde eskatzailea ordezkatzeko gaitasun legala duen pertsonak sinaturik Merkataritza Zuzendaritzara bidali beharko dira, eta Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Lurralde Ordezkaritzan –proiektua kokatzen denekoan– eta Eusko Jaurlaritzako Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (Zuzenean) aurkeztuko dira; edo, bestela, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan.

Kasu horretan, jakinarazpenak bitarteko telematikoen bidez egingo dira, interesdunak lehentasunezkoa dela adierazi duenean, edo espresuki bitarteko hori erabiltzea baimendu duenean soilik.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak konpromisoa hartzen du Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritako babes-mailarekin tratatuko dituela datu guztiak.

Eskabideak aurkezteko epea hauxe izango da: 2015eko irailaren 8ko 09:00etatik 2015eko urriaren 7ko 12:00ak artekoa.

Egitea aurreikusten diren jarduerentzako eskabidea bakarra izango da, eta, onar dadin, osorik bete beharko da.

2.– Hizkuntzaren arloko herritarren eskubideak eta botere publikoen eginbeharrak kontuan harturik, erakunde eskatzaileak bi hizkuntza ofizialetako edozein aukeratu ahalko du Administrazioarekin harremanetan jartzeko (Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5 eta 6 artikuluak).

3.– Erakunde eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera:

UDALAK

a) Laguntza eskatzeko erabakiaren ziurtagiria, organo eskudunak egina, aurkeztutako jarduera bakoitzaren kostua eta eskatutako laguntzaren zenbatekoa zehaztuta.

b) Diru-laguntzaren bidez finantzatu nahi diren jardueren inguruko azalpen-txostena, merkataritza-ikuspegitik egina, Merkataritza Suspertzeko Plan Bereziaren (MSPB) ikerlanean duten kokapena adieraziz, edo horren ordezkoan edo osagarrian dutena, halakorik baldin badago.

Txosten horretan, gutxienez, ondorengo informazioa jaso beharko da:

1) Garatu beharreko jarduera bakoitzaren gauzatze-proiektua, zera adieraziz:

a) Lortu nahi diren helburuak.

b) Gauzatu beharreko ekintzak.

c) Egindakoaren eraginkortasuna neurtzeko adierazleak.

2) Aurrekontu zehatzak, baita partidaz partida ere, kasuan kasu.

3) Gauzatze-egutegia.

4) Dokumentazio grafikoa, jardueren kokaleku izango diren eremuen aurretiko egoeraren argazkiak barne.

c) 5. artikuluan aipatutako esparru-akordioaren kopia, baita ondoren egindako edozein aldaketaren kopia ere.

d) Erakundeak diru-laguntzen bidez finantzatu nahi diren jarduera horiek eta/edo inbertsioak egiteko bestelako diru-laguntzarik jasotzen ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria, organo eskudunak egina.

e) Erakunde eskatzailearen zin-egite edo erantzukizunpeko adierazpena, diru-laguntza eta laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratiborik edo legezko debekurik ez duela jasotzen duena (ildo horretan, kontuan izan behar dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, sexuaren ziozko bereizkeria zehatzeko ezarritako zigor eta debekuak).

f) Eskatzailearen <<Hirugarren Interesdunaren Alta>> izeneko dokumentua, Ogasun eta Finantza Sailak xedatutako ereduaren araberakoa (http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net), bakarrik lehenago ez bada aurkeztu edo lehenagoko eskabideetako datuak aldatu badira.

ELKARTEAK:

a) Eskatzailearen identitatea egiaztatzen duen dokumentazioa. Kasuan kasu, eratze-eskrituraren, estatutuen eta erregistroko izen-ematearen kopiak aurkeztu beharko ditu.

Hainbat elkarte ordezkatzen dituen enpresa-erakundearen kasuan, aipatutako ordezkaritza jasotzen duen akordioaren kopia.

Esandako akordioan ez badute udalerriko elkarte guztiek parte hartzen, azalpen-agiri batean jasoko dira akordioa lortzeko egindako izapideak, zer erakunde geratu diren akordiotik kanpo eta zergatik.

b) Erakunde eskatzailea legez ordezkatzen duen pertsonaren NANaren fotokopia eta berorren ahalorde-agiria, edo, bestela, laguntza-programa hau kudeatzen duen organoaren aldeko berariazko baimena hura lortzeko.

c) Erakunde eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia, edo, bestela, laguntza-programa hau kudeatzen duen organoaren aldeko berariazko baimena hura lortzeko.

d) Azalpen-memoria, merkataritzaren ikuspegitik egina, laguntzaren helburu den jarduera bakoitzari buruzkoa; betiere, honako hau jasoz: MSPB ikerlanean sartzen den ala ez, edo, halakorik bada, hura ordezten edo osotzen duenean.

Txosten horretan, gutxienez, ondorengo informazioa jaso beharko da:

1) Garatu beharreko jarduera bakoitzaren gauzatze-proiektua, zera adieraziz:

a) Lortu nahi diren helburuak.

b) Gauzatu beharreko ekintzak.

c) Egindakoaren eraginkortasuna neurtzeko adierazleak.

2) Sarreren eta gastuen aurrekontu xehetuak.

3) Gauzatze-egutegia.

e) Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganbera egokiak emandako ziurtagiri eguneratua, Merkatarien Elkarteen Erroldan erakunde eskatzaileaz dauden datuei buruzkoa, dauden datu guztiak jasoz.

f) Elkarteko idazkariaren ziurtagiria, zeinetan honako hauek jasotzen diren: elkartekideen zerrenda, eskabide egiteko epearen aurreko hilabetearekiko eguneratua, eta azken ekitaldian bildutako kuotak. Enpresen zerrenda sexuaren arabera bananduta islatu beharko da; alegia, merkataritza-enpresetako titular diren emakumezkoak adieraziko dira, alde batetik, eta titular gizonezkoak, bestetik.

g) Kasuan kasu, 5. artikuluan aipatutako esparru-akordioaren kopia, baita ondoren egindako edozein aldaketaren kopia ere.

h) Erakunde eskatzailearen zin-egite edo erantzukizunpeko adierazpena, diru-laguntza eta laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapenik –ez zigor arlokorik ez administrazio bidekorik– edo legezko debekurik ez duela jasotzen duena (ildo horretan, kontuan izan behar dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, sexuaren ziozko bereizkeria zehatzeko ezarritako zigor eta debekuak).

i) Merkatarien elkarte bat baino gehiago duten udalerrien kasuan, haien ordezkaritza duen erakundeak honako hauek aurkeztu beharko ditu: elkarteetariko bakoitzak proiektuaren exekuzioarekiko duen konpromiso- eta partaidetza-maila; laguntza zehaztearen ondorioei dagokienez zenbatekoa; eta elkartearen ordezkari izango den pertsona izendatzeko dokumentazioa –laguntzaren onuradun gisa dituen obligazioak betetzeko ahalmen aski duena izango da ordezkaritza hori.

J) Eskatzailearen <<Hirugarrenaren Alta>> izeneko dokumentua, Ogasun eta Finantzetako sailak xedatutako ereduaren araberakoa (http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net), bakarrik lehenago ez bada aurkeztu edota lehenagoko eskabideetako datuak aldatu badira.

11. artikulua.– Zuzenketak.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren lurralde ordezkaritzak ikusten badu aurkeztutako eskabidean akatsen bat edota zehaztasun faltaren bat dagoela, eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango, haiek zuzen ditzan; halaber, jakinaraziko zaio ezen, hori horrela egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Esandako epe horretan akatsa konpontzen ez bada, lurralde ordezkariak ebazpena jaulkiko du adieraziz eskatzaileak atzera egin duela, Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 42. eta 71.1. artikuluetan dioenaren arabera.

12. artikulua.– Eskaerak aztertzea eta ebaluatzea.

1.– Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren lurralde-ordezkaritzari (inbertsioa egingo edo jarduera gauzatuko deneko lurraldearen araberakoari) dagokio aurkezten diren eskabideak aztertzea eta ebaluatzea. Eskabide horiek egoki ulertu eta ebaluatzeko, beharrezko irizten dien argibide eta agiri osagarri guztiak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

2.– Eskabide bakoitza aztertu eta ebaluatu ondoren, ebazpen-proposamen bat aurkeztuko da eta berariaz adieraziko da eskatutako diru-laguntza emango den ala ez, eta zenbatekoa izango den.

13. artikulua.– Laguntza emateko ebazpena.

1.– Merkataritzako zuzendariak, aurreko artikuluan aipatutako proposamenak aurrean dituela, sei hilabeteko epean –laguntza-eskabidea aurkeztu zen hurrengo egunetik zenbatuta–, ordenan ebatziko ditu eskabideak, espedientea osaturik geratzen den momentuaren arabera, agindu honetako 2. artikuluko 3. paragrafoan xedatuarekin bat etorriz.

2.– Erakunde eskatzaileei diru-laguntzak emateko ebazpenak banan-banan jakinarazteaz gainera, onuradunen zerrenda eta emandako diru-laguntzen zenbatekoa argitaratuko dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluan xedatuari jarraikiz.

3.– Laguntza ematearen ebazpenak erakunde onuradunaren nortasuna, diruz lagundutako proiektu bakoitzari emandako laguntzaren zenbatekoa, berorren kostu estimatua eta egikaritzeko epea jaso beharko ditu. Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea amaituko, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Merkataritza eta Turismoko sailburuordeari, azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutako epean eta moduan.

4.– Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa– 43. artikuluan xedatuarekin bat etorririk, ebazpena emateko epea amaitu, eta interesdunari ez bazaio horren berri eman, laguntza-eskabidea onartu egin dela ulertuko da.

14. artikulua.– Gastuak eta inbertsioak justifikatzea.

1.– Diruz lagundutako proiektua gauzatu ostean, erakunde onuradunak honako dokumentazioa aurkeztu beharko du lurralde-ordezkaritza egokian: justifikazio-dokumentazioa, kasuan kasukoa:

– Kontu-sailak likidatzeari buruzko ziurtagiriak.

– Jardueraren amaierari buruzko udal ziurtagiriak.

– Faktura originalak edo konpultsatuak eta euren ordainketa-egiaztagiriak.

– Dokumentazio grafikoa.

– Azken buruko egoeraren argazkiak, eskabidean aurkeztutakoekin bat datozenak.

– Jarduerako gastuak eta sarrerak.

– Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako laguntzei buruzko deklarazioa, zeinetan honako hauek jasotzen diren: erakunde finantzatzailea eta onartutako edo jasotako zenbatekoa.

Esparru-akordioan ezarritako segimendu-batzordeak egindako balioespen-akta, eta, halako batzorderik ez bada, elkarteak egindako txostena, zeinetan honako hauek jasotzen diren: gauzatutako proiektuen adierazleetako hasierako eta bukaerako emaitzak, lortutako ondorioak, eta garatutako jarduera bakoitzaz udalak zein merkatarien elkarteak egindako balioespena. Hurrengo ekitaldietan hura errepikatzeko motiboak eta komenientzia.

2.– Aurkeztutako proiektuaren/en justifikazioan, aurkeztutako eta diru-laguntza emateko kontuan izandako aurrekontuari dagokionez beherazko % 25ekoa baino desbideratze txikiagoa badago; bada, diru-laguntza birkalkulatu egingo da, betiere hasierako esleipena kalkulatzeko erabili ziren irizpide berberak aplikatuz.

Beheranzko desbideratzea % 25ekoa edo handiagoa bada, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu egin daiteke, emandako diru-laguntzaren bidez lortu nahi ziren helburu guztiak bete direla justifikatzen denean izan ezik. Bigarren kasu honetan, aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan murriztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

Kasu bietan ere, alegazioak aurkeztu ahal daitezen, entzunaldiaren izapidea eskainiko da, eta agindu honetako 19. artikuluan aurreikusitako espedientea izapidetuko da.

3.– Merkatarien elkarteek garatutako jarduerei dagokienez, 2015eko abenduaren 31 izango da epe-muga; eta udalek garatutakoei dagokienez, 2016ko abenduaren 31.

Justifikazio-dokumentazioa aurkezteko epea 2 hilabetekoa izango da, onartutako azken proiektua exekutatzen denetik hara.

4.– Lurralde-ordezkaritzek gastu justifikatuen azterketaren eta aurkeztutako euskarri materialaren bitartez egiaztatuko dute laguntzaren xede izan diren jarduerak gauzatu direla, eta betetzen dituela, azken batean, agindu honetan ezarritako betekizunak. Halaber, Lurralde-ordezkaritzek kasu guztietan ikuskatuko dute lagundutako inbertsio-proiektua, jarduera egikaritu dela eta diruz lagundutako proiektura egokitzen dela egiaztatzeko, eta dagokion agirian edo txostenean jasoko dute lortutako emaitzaren berri.

5.– Aipatutako alderdi guztiak behin egiaztatu dituztenean, Lurralde-ordezkaritzek txosten bat jaulkiko dute eta Merkataritzako Zuzendaritzari igorriko diote; bertan, egindako gastuaren arabera, dagokion diru-laguntzaren likidazioa proposatuko da.

15. artikulua.– Diru-laguntzak ordaintzea.

Laguntzak ondorengo formularen arabera ordainduko dira:

–Aldeko ebazpena eman ostean ordainduko da emandako diru-laguntzaren % 70, 16.a) artikuluan aurreikusitako epea igarotakoan, betiere berariaz uko egiten ez bazaio.

– Diruz lagundutako jarduera eta/edo inbertsio guztiak bukatu ondoren ordainduko da enparaua, betiere agindu honetako 14. artikuluan zehaztu dokumentazioa aurkeztu ostean erakunde onuradunak.

16. artikulua.– Enpresa onuradunaren/en betebeharrak.

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Diru-laguntza eman zaiela jakinarazten dien idazkia jaso eta hamabost eguneko epean erakunde onuradunek ukoa idatziz eta berariaz adierazten ez badute, diru-laguntza onartu egiten dutela ulertuko da.

b) Justu ematen zaien xede horretarako erabili beharko dute diru-laguntza.

c) Eskatzen zaien informazio osagarri guztia eman beharko diote Merkataritza Zuzendaritzari, hark egoki irizten dituen egiaztapen guztiak egin ditzan diruz lagundutako jardueren garapenaren eta gauzatze-lanen inguruan.

d) Deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzei dagokienez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako informazioa ematea, betiere erakundeok euren funtzioak betetzen ari direla.

e) Udalak: Diruz lagundutako jarduera guztietan, berariaz jaso beharko da Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Merkataritza Zuzendaritzak emandako babesa, betiere Ikusizko Nortasunaren Eskuliburuaren bidez Merkataritza Zuzendaritzak zehaztutako eran. Era berean, Merkataritza Zuzendaritzari jakinaraziko diote jarduera bakoitzaren amaiera data.

f) Merkatarien elkarteak:

– Idatziz jakinarazi beharko diote dagokion lurralde-ordezkaritzari, gutxienez 7 egun baliodun eko aurrerapenarekin, diruz lagundutako aktibitateak non, noiz eta zer ordutan izango diren.

– Beherago zehaztutakoetan, berariaz jaso beharko da Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Merkataritza Zuzendaritzak emandako babesa: edozein euskarri, kartelak, seinaleak eta diruz lagundutako jarduerak, haien zabalkundea edo, kasua bada, publizitatea egitea badakarte, betiere Ikusizko Nortasunaren Eskuliburuaren bidez Merkataritza Zuzendaritzak zehaztutako eran. Era berean, esandako horietako bakoitzaren ale bat gutxienez entregatuko dute.

– Idatziz jakinarazi beharko diote dagokion lurralde-ordezkaritzari, diruz lagundutako aktibitateen edozein aldaketa, egitea aurreikusita zegoen data baino lehenago.

– Ez dute ezein euskarritan, publizitatekoa edo informaziokoa izan, hizkera edo irudi sexistarik erabiliko (Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Legearen 3. artikulua). Halaber, zuzenean sortzen dituzten agirietan, hizkera inklusiboa izango da.

g) Bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira diruz lagundutako jardueren argitalpen, iragarki eta publizitate guztietan, eta pertsona erabiltzaileei eta kontsumitzaileei erakunde onuradunekin dituzten harremanetan gaztelania eta euskara erabiltzeko eskubidea bermatuko zaie.

17. artikulua. – Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Onartu daitekeen bakarra dagokion eskabidean aurkeztutako eta garatu beharreko jardueretan aldaketaren batzuk egitea da. Baina, inola ere ez da onartuko jarduketak ordeztea, ezta eskabidean aurkeztu ez diren jarduketak sartzea ere,

Eragin horietarako, Merkataritza Zuzendaritzak birdoitu egingo ditu emandako diru-laguntzen zenbatekoak, dagokion likidazio-ebazpenean.

18. artikulua. – Ikuskatzea.

Diruz lagundutako proiektuak aurrera nola doazen eta nola ari diren garatzen ikusteko egoki deritzen ikuskatze eta egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak. Hartara, eskatzen dizkien argibide osagarri guztiak eman beharko dizkiote enpresa onuradunek.

19. artikulua. – Ez-betetzeak.

Erakunde onuradunak betetzen ez baditu laguntza emateko ebazpenean eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako baldintzak, Merkataritzako zuzendariak, behar den ebazpena emanez eta ez-betetze horri buruzko espedientea egin ondoren, onartutako diru-kopuruak eskuratzeko eskubidea galdu duela adieraziko du, eta aginduko du Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzul diezazkiola jasotako zenbatekoak, bai eta legezko interesak ere, hala baitiote Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1/1997 Legegintza Dekretuak eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak. Ez-betetze espedientea irekitzea kasuan kasuko lurralde-ordezkaritzako delegatuari dagokio. Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorioei dagokienez.

II.ERANSKINA
15.000 BIZTANLETIUK GORAKO UDALERRIAK

Araba:

Laudio-Llodio
Vitoria-Gasteiz

1. Bizkaia:

Amorebieta-Etxano
Barakaldo
Basauri
Bermeo
Bilbao
Durango
Erandio
Ermua
Galdakao
Gernika-Lumo
Getxo
Leioa
Mungia
Portugalete
Santurtzi
Sestao

2. Gipuzkoa:

Arrasate-Mondragón
Bergara
Donostia-San Sebastián
Eibar
Errenteria
Hernani
Hondarribia
Irun
Lasarte-Oria
Pasaia
Tolosa
Zarautz

ANEXO III. ERANSKINA
15.000 BIZTANLETIK BEHERAKO UDALERRIAK, MERKATARITZA SUSPERTZEKO GAITASUNDUN HIRIGUNEA DUTENAK

1. Araba:

Agurain
Alegria-Dulantzi
Artziniega
Elciego
Labastida/Bastida
Laguardia
Oyón/Oion

2. Bizkaia:

Balmaseda
Berriz
Elorrio
Etxebarri
Larrabetzu
Lekeitio
Markina-Xemein
Mundaka
Ondarroa
Plentzia
Ugao-Miraballes
Urduña-Orduña
Valle de Trápaga-Trapagaran

3. Gipuzkoa:

Alegia
Andoain
Antzuola
Aretxabaleta
Astigarraga
Azkoitia
Azpeitia
Beasain
Deba
Elgoibar
Eskoriatza
Getaria
Lazkao
Legazpi
Lezo
Mutriku
Oiartzun
Oñati
Ordizia
Orio
Segura
Soraluze-Placencia de las Armas
Urretxu
Zestoa
Zumaia

ANEXO IV. ERANSKINA
EUREN MERKATARITZA-INGURUNEAN ERREFERENTZIA EKONOMIKO ETA KOMERTZAILEKO ERDIGUNE KONTSIDERAZTEN DIREN UDALRRRIAK

1. Araba:

Amurrio

2. Bizkaia:

Abanto y Ciérvana/Abanto-Zierbena
Arrigorriaga
Sopela
Zalla

3. Gipuzkoa:

Usurbil
Zumarraga

ANEXO V. ERANSKINA
ESKUALDEKO UDALERRI NAGUSIAK, 100 MERKATARITZA-ESTABLEZIMENDUTIK GORA DITUZTENAK

1. Araba:

Laudio/Llodio (Kantauri Arabarra / Cantábrica Alavesa)
Vitoria-Gasteiz (Arabako Lautada / Llanada Alavesa)

2. Bizkaia:

Bilbao (Bilbo Handia / Gran Bilbao)
Bermeo (Gernika-Bermeo)
Durango (Durangaldea / Duranguesado)
Mungia (Plentzia-Mungia)
Ondarroa (Markina-Ondarroa)
Zalla (Enkartazioak / Encartaciones)

3. Gipuzkoa:

Arrasate/Mondragón (Debagoiena / Alto Deba)
Beasain (Goierri)
Donostia/San Sebastián (Donostialdea / Donostia-San Sebastián)
Eibar (Deba Beherea / Bajo Deba)
Irun (Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa)
Tolosa (Tolosaldea / Tolosa)
Zarautz (Urola-Kostaldea / Urola Costa)

VI. ERANSKINA

EAEko udalerrietako biztanleriari, merkataritza-establezimenduei eta merkataritza-dentsitateari buruzko datuak, EUSTATen 2015eko urtarrilaren 1eko datuen arabera.

Laguntza-programa hau arautzeko Aginduan ezarritakoaren ondorioei dagokienez, EAEKO merkataritza-dentsitatea 13,04 izango da.

Lurraldea	Udalerria	Biztanleria	Merkataritza-establezimenduak	Dentsitatea
Araba	Alegría-Dulantzi	3060	14	4,69
Araba	Amurrio	10280	118	11,63
Araba	Añana	177	1	5,81
Araba	Aramaio	1529	5	3,26
Araba	Armiñón	230	0	0
Araba	Arraia-Maeztu	710	5	6,75
Araba	Arrazua-Ubarrundia	1040	3	3,02
Araba	Artziniega	1842	17	9,05
Araba	Asparrena	1659	9	5,27
Araba	Ayala/Aiara	2876	12	4,22
Araba	Baños de Ebro/Mañueta	327	1	3,13
Araba	Barrundia	949	2	2,14
Araba	Berantevilla	486	3	6,26
Araba	Bernedo	559	4	6,8
Araba	Campezo/Kanpezu	1079	6	5,3
Araba	Elburgo/Burgelu	645	1	1,55
Araba	Elciego	1082	12	11,12
Araba	Elvillar/Bilar	341	2	5,62
Araba	Erriberagoitia/Ribera Alta	842	1	1,14
Araba	Harana/Valle de Arana	265	1	3,45
Araba	Iruña Oka/Iruña de Oca	3185	21	6,72
Araba	Iruraiz-Gauna	541	1	1,75
Araba	Kripan	188	0	0
Araba	Kuartango	344	2	5,85
Araba	Labastida/Bastida	1521	17	11,18
Araba	Lagrán	166	0	0
Araba	Laguardia	1592	27	16,92
Araba	Lanciego/Lantziego	701	6	8,52
Araba	Lantarón	952	4	4,27
Araba	Lapuebla de Labarca	862	6	6,95
Araba	Laudio/Llodio	18532	217	11,69
Araba	Legutio	1698	14	8,1
Araba	Leza	213	1	4,41
Araba	Moreda de Álava/Moreda Araba	271	1	3,53
Araba	Navaridas	233	1	4,26
Araba	Okondo	1151	5	4,31
Araba	Oyón-Oion	3388	29	8,6
Araba	Peñacerrada-Urizaharra	284	0	0
Araba	Ribera Baja/Erribera Beitia	1474	8	5,57

Lurraldea	Udalerria	Biztanleria	Merkataritza-establezimenduak	Dentsitatea
Araba	Salvatierra/Agurain	5060	61	12,15
Araba	Samaniego	273	3	9,26
Araba	San Millán/Donemiliaga	744	5	6,77
Araba	Urkabustaiz	1312	6	4,35
Araba	Valdegovía/Gaubea	1084	4	3,57
Araba	Villabuena de Alava/Eskuernaga	316	3	8,98
Araba	Vitoria-Gasteiz	238862	2879	12
Araba	Yécora/Iekora	266	0	0
Araba	Zalduondo	196	0	0
Araba	Zambrana	427	1	2,29
Araba	Zigoitia	1766	49	27,87
Araba	Zuia	2452	15	6,12
Bizkaia	Abadiño	7533	76	10,29
Bizkaia	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	9691	78	7,98
Bizkaia	Ajangiz	456	0	0
Bizkaia	Alonsotegi	2855	22	7,69
Bizkaia	Amorebieta-Etxano	18216	232	12,79
Bizkaia	Amoroto	408	1	2,49
Bizkaia	Arakaldo	150	2	16
Bizkaia	Arantzazu	385	0	0
Bizkaia	Areatza	1205	12	9,85
Bizkaia	Arrankudiaga	989	4	4,09
Bizkaia	Arratzu	401	0	0
Bizkaia	Arrieta	568	0	0
Bizkaia	Arrigorriaga	12132	92	7,46
Bizkaia	Artea	762	6	7,86
Bizkaia	Artzentales	713	3	3,98
Bizkaia	Atxondo	1393	8	5,63
Bizkaia	Aulesti	654	2	3
Bizkaia	Bakio	2616	18	6,92
Bizkaia	Balmaseda	7768	109	14,21
Bizkaia	Barakaldo	98793	1311	13,17
Bizkaia	Barrika	1555	4	2,61
Bizkaia	Basauri	41499	612	14,58
Bizkaia	Bedia	1033	7	7,17
Bizkaia	Berango	7049	31	4,45
Bizkaia	Bermeo	16861	247	14,54
Bizkaia	Berriatua	1248	11	8,74
Bizkaia	Berriz	4795	47	9,6
Bizkaia	Bilbao	344443	5281	15,06
Bizkaia	Busturia	1685	7	4,01
Bizkaia	Derio	6301	74	12,47
Bizkaia	Dima	1416	7	5,14
Bizkaia	Durango	29013	440	15,23
Bizkaia	Ea	861	6	6,88
Bizkaia	Elantxobe	392	4	9,78

Lurraldea	Udalerria	Biztanleria	Merkataritza-establezimenduak	Dentsitatea
Bizkaia	Elorrio	7255	62	8,49
Bizkaia	Erandio	24047	309	12,78
Bizkaia	Ereño	252	0	0
Bizkaia	Ermua	16075	207	12,73
Bizkaia	Errigoiti	507	0	0
Bizkaia	Etxebarri	10697	77	7,49
Bizkaia	Etxebarria	724	4	5,43
Bizkaia	Forua	950	3	3,09
Bizkaia	Fruiz	557	0	0
Bizkaia	Galdakao	29291	387	13,31
Bizkaia	Galdames	824	1	1,18
Bizkaia	Gamiz-Fika	1340	3	2,23
Bizkaia	Garai	315	0	0
Bizkaia	Gatika	1617	3	1,85
Bizkaia	Gautegiz Arteaga	872	1	1,1
Bizkaia	Gernika-Lumo	16528	309	18,66
Bizkaia	Getxo	78694	953	11,94
Bizkaia	Gizaburuaga	213	3	14,63
Bizkaia	Gordexola	1716	13	7,5
Bizkaia	Gorliz	5664	44	7,98
Bizkaia	Güeñes	6492	64	9,95
Bizkaia	Ibarrangelu	638	2	3,14
Bizkaia	Igorre	4164	60	14,34
Bizkaia	Ispaster	717	4	5,71
Bizkaia	Iurreta	3740	45	11,75
Bizkaia	Izurtza	287	2	6,97
Bizkaia	Karrantza Harana/Valle de Carranza	2797	23	8,21
Bizkaia	Kortezubi	456	2	4,72
Bizkaia	Lanestosa	277	2	7,33
Bizkaia	Larrabetzu	2043	11	5,56
Bizkaia	Laukiz	1144	4	3,47
Bizkaia	Leioa	30595	416	13,66
Bizkaia	Lekeitio	7345	120	16,2
Bizkaia	Lemoa	3573	31	8,94
Bizkaia	Lemoiz	1193	5	4,63
Bizkaia	Lezama	2399	14	5,72
Bizkaia	Loiu	2298	29	11,96
Bizkaia	Mallabia	1209	10	8,43
Bizkaia	Mañaria	500	1	1,95
Bizkaia	Markina-Xemein	4923	70	14,27
Bizkaia	Maruri-Jatabe	934	1	1,04
Bizkaia	Meñaka	729	2	2,72
Bizkaia	Mendata	385	0	0
Bizkaia	Mendexa	465	1	2,19
Bizkaia	Morga	419	1	2,47
Bizkaia	Mundaka	1879	17	8,84

Lurraldea	Udalerria	Biztanleria	Merkataritza-establezimenduak	Dentsitatea
Bizkaia	Mungia	16888	201	11,98
Bizkaia	Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz	466	0	0
Bizkaia	Murueta	296	1	3,48
Bizkaia	Muskiz	7491	65	8,73
Bizkaia	Muxika	1440	7	4,8
Bizkaia	Nabarniz	237	0	0
Bizkaia	Ondarroa	8650	127	14,44
Bizkaia	Orozko	2624	12	4,7
Bizkaia	Ortuella	8399	80	9,5
Bizkaia	Otxandio	1298	11	8,47
Bizkaia	Plentzia	4430	36	8,17
Bizkaia	Portugalete	47001	657	13,79
Bizkaia	Santurtzi	46327	528	11,25
Bizkaia	Sestao	27859	330	11,56
Bizkaia	Sondika	4527	47	10,46
Bizkaia	Sopela	12295	122	10,01
Bizkaia	Sopuerta	2554	23	8,93
Bizkaia	Sukarrieta	344	1	2,95
Bizkaia	Trucios-Turtzioz	532	3	5,5
Bizkaia	Ubide	181	0	0
Bizkaia	Ugao-Miraballes	4065	54	13,35
Bizkaia	Urduliz	3919	29	7,99
Bizkaia	Urduña/Orduña	4182	67	15,93
Bizkaia	Valle de Trápaga-Trapagaran	12052	177	14,6
Bizkaia	Zaldibar	3041	23	7,56
Bizkaia	Zalla	8415	134	15,99
Bizkaia	Zamudio	3174	47	14,62
Bizkaia	Zaratamo	1655	12	7,22
Bizkaia	Zeanuri	1264	7	5,32
Bizkaia	Zeberio	1066	3	2,83
Bizkaia	Zierbena	1501	5	3,42
Bizkaia	Ziortza-Bolibar	463	0	0
Gipuzkoa	Abaltzisketa	319	0	0
Gipuzkoa	Aduna	467	2	4,48
Gipuzkoa	Aia	2011	10	4,99
Gipuzkoa	Aizarnazabal	754	3	4,07
Gipuzkoa	Albiztur	306	1	3,41
Gipuzkoa	Alegia	1781	24	13,41
Gipuzkoa	Alkiza	360	4	11,36
Gipuzkoa	Altzaga	166	0	0
Gipuzkoa	Altzo	345	0	0
Gipuzkoa	Amezketa	949	7	7,36
Gipuzkoa	Andoain	14886	150	10,1
Gipuzkoa	Anoeta	1893	18	9,8
Gipuzkoa	Antzuola	2241	17	7,76
Gipuzkoa	Arama	220	5	25,13

Lurraldea	Udalerria	Biztanleria	Merkataritza-establezimenduak	Dentsitatea
Gipuzkoa	Aretxabaleta	6993	60	8,79
Gipuzkoa	Arrasate/Mondragón	21922	291	13,32
Gipuzkoa	Asteasu	1509	10	6,69
Gipuzkoa	Astigarraga	5564	74	15,02
Gipuzkoa	Ataun	1698	13	7,74
Gipuzkoa	Azkoitia	11754	130	11,13
Gipuzkoa	Azpeitia	14725	248	17,06
Gipuzkoa	Baliarrain	132	0	0
Gipuzkoa	Beasain	13785	238	17,3
Gipuzkoa	Beizama	129	0	0
Gipuzkoa	Belauntza	274	3	10,07
Gipuzkoa	Berastegi	1040	6	5,76
Gipuzkoa	Bergara	15010	214	14,49
Gipuzkoa	Berrobi	583	4	6,92
Gipuzkoa	Bidania-Goiatz	519	4	7,49
Gipuzkoa	Deba	5400	69	12,82
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastián	180397	2948	16,22
Gipuzkoa	Eibar	27213	401	14,7
Gipuzkoa	Elduain	240	0	0
Gipuzkoa	Elgeta	1106	9	8,17
Gipuzkoa	Elgoibar	11383	151	13,35
Gipuzkoa	Errenteria	39808	461	11,65
Gipuzkoa	Errezil	602	5	8,12
Gipuzkoa	Eskoriatza	4121	29	7,13
Gipuzkoa	Ezkio-Itsaso	618	2	3,27
Gipuzkoa	Gabiria	513	0	0
Gipuzkoa	Gaintza	121	0	0
Gipuzkoa	Gaztelu	178	0	0
Gipuzkoa	Getaria	2696	29	10,91
Gipuzkoa	Hernani	19918	234	12,01
Gipuzkoa	Hernialde	343	0	0
Gipuzkoa	Hondarribia	16844	159	9,7
Gipuzkoa	Ibarra	4195	47	11,11
Gipuzkoa	Idiazabal	2336	21	9,11
Gipuzkoa	Ikaztegieta	461	2	4,28
Gipuzkoa	Irun	59483	1038	17,36
Gipuzkoa	Irura	1640	14	8,7
Gipuzkoa	Itsasondo	667	2	2,94
Gipuzkoa	Larraul	261	0	0
Gipuzkoa	Lasarte-Oria	18455	184	10,11
Gipuzkoa	Lazkao	5357	55	10,3
Gipuzkoa	Leaburu	370	1	2,61
Gipuzkoa	Legazpi	8557	106	12,33
Gipuzkoa	Legorreta	1510	14	9,23
Gipuzkoa	Leintz Gatzaga	255	0	0
Gipuzkoa	Lezo	6078	54	8,94

Lurraldea	Udalerria	Biztanleria	Merkataritza-establezimenduak	Dentsitatea
Gipuzkoa	Lizartza	671	2	3,08
Gipuzkoa	Mendaro	2011	14	7,11
Gipuzkoa	Mutiloa	249	0	0
Gipuzkoa	Mutriku	5282	55	10,85
Gipuzkoa	Oiartzun	10056	172	17,09
Gipuzkoa	Olaberria	958	22	23,5
Gipuzkoa	Oñati	11202	125	11,33
Gipuzkoa	Ordizia	9456	153	16,09
Gipuzkoa	Orendain	191	0	0
Gipuzkoa	Orexa	114	0	0
Gipuzkoa	Orio	5748	69	12,84
Gipuzkoa	Ormaiztegi	1291	13	9,92
Gipuzkoa	Pasaia	16345	172	10,64
Gipuzkoa	Segura	1491	11	7,43
Gipuzkoa	Soraluze-Placencia de las Armas	3941	38	9,61
Gipuzkoa	Tolosa	18835	382	20,82
Gipuzkoa	Urnieta	6122	50	8,14
Gipuzkoa	Urretxu	6932	104	14,99
Gipuzkoa	Usurbil	6207	101	16,54
Gipuzkoa	Villabona	5769	83	14,35
Gipuzkoa	Zaldibia	1556	18	11,92
Gipuzkoa	Zarautz	22814	363	16,1
Gipuzkoa	Zegama	1531	9	5,8
Gipuzkoa	Zerain	265	0	0
Gipuzkoa	Zestoa	3664	40	10,94
Gipuzkoa	Zizurkil	2941	10	3,54
Gipuzkoa	Zumaia	9662	129	13,59
Gipuzkoa	Zumarraga	9866	139	14

IZAPIDEKETA TELEMATIKOA EGITEKO HIRUGARREN PERTSONAK AHALORDETZEA

Identifikazio-datuak

Ahalorde emailea

Izena..... Lehen abizena.....

Bigarren abizena.....NAN.....

Zein erakunderen izenean diharduen.....IFK .....

Helbidea.....ZK.....

Herria-udalerria ..... PK .....

Helbide elektronikoa.....Telf. .....

Ordezkaria

Izena.....Lehen abizena.....

Bigarren abizena..... NAN.....

Zein erakunderen izenean diharduen .....IFK.....

Helbide elektronikoa.....Telf. .....

Baliabide elektronikoen bidez, honako jarduketa hauek egiteko

☐ Eskabideak eta errekurtsoak aurkeztea, atzera egitea, uko egitea eta dokumentazioa aurkeztea.
☐ Espedienteetara sartzea.
☐ Jakinarazpenak jasotzea.

Ondoko prozeduretan

Laguntzak (idatzi laguntzaren izena).....

Data eta sinadura

Laguntza-programaren indarraldian zehar izango du balioa ahalordetze honek, eta, kasua bada, errekurtsoek eta programaren ondoriozko gainontzeko prozedurek dirauten artean.

.....n/en..... Ko/eko .....ren.....

(Ordezkatutako erakundeak / pertsonak sinatzen du)